

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

11/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren, azaroaren 27koa, 33/2013 Foru Araua aldatzekoa, garraio kolektiboa lantokietara joateko erabiltzea tributatzetik sabuetsita dagoen gausazko ordainsaritzat hartze aldera

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko uztailaren 11n egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

11/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren, azaroaren 27koa, 33/2013 Foru Araua aldatzekoa, garraio kolektiboa lantokietara joateko erabiltzea tributatzetik sabuetsita dagoen gausazko ordainsaritzat hartze aldera.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera letra berri bat –h)- gehitu zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauari. Honela idatzita geratzen da:

“h) Bidaiarien garraio kolektiboaren zerbitzua emateko ardura duten erakundeei ordaindutako diru-kopuruak, langileak beren etxebizitzatik lantokira horrela joatea sustatzeko helburuz, betiere konpromiso hori jasota badago dagokion hitzarmen kolektiboan edo akordio sozialean. Muga 1.500 eurokoa izango da urteko eta langile bakoitzeko. Halaber, zerbitzu publiko hori emateko ardura duten erakundeei ordaindutako diru-kopurutzat joko dira erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten zeharkako ordainketa-erak.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen kasurako, ez da gausazko lan-ordainsaritzat joko alderdi enplegatzaileak bere bitartekoak erabiliz langileen garraio-zerbitzua ematen duelarik.”

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 11

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA